

1999ko URRIAREN 13ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeita hemeretziko urriaren hamahiruan, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Lurdes Altuna Arritegi, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez; Koldo Alaña Zinegotzia, preso dagoenez, eta bilkurara etortzeko baimenik eman ez diotenez, ez da agertu; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- ZAHARREN EGOITZETAN SARTZEKO ARAUDIA

Ana Irurzun Gizarte Ongizateko zinegotziak, Gizarte Laguntzaileak prestatu duen, Zaharren Egoitzetan sartzeko emandako dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza aurkeztu du, eta literalki, honela dio:

ZAHARREN EGOITZETAN SARTZEKO EMANDAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

LEHEN ATALA

XEDAPEN OROKORRAK, EREMU PERTSONALA ETA MATERIALA

1.go artikulua

Lizartzako Udaletxeak Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden Zaharren Egoitzetan sartzeko dirulaguntzak emateko betekizunak, baldintzak eta prozedura arautzea da Ordenantza honen xedea.

2. artikulua

Ordenantza honetan finkatutakoaren arabera, Lizartzako udalerrian, gutxienez eskaera egin aurreko hamar urteetan bertan erroldatuta egon diren pertsonenganako betebeharrak bere gain hartuko ditu Lizartzako Udaletxeak.

3. artikulua

Sartzeko izapide-eskaerei, gai diren edo laguntza behar duten pertsonen kostuen arabera ordaindu behar diren kopuruei eta Ordenantza honen xede espezifikoarekin zerikusirik ez duten bestelako arloei buruz, Lizartzako udaletxeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak gai horiei buruz ezarrita duena errespetatuko dute.

BIGARREN ATALA

BETEKIZUNAK ETA BALDINTZAK

4. artikulua

Partikularrak eta Foru Aldundiak ordaindutakoa plazaren kostu erreala ordaintzeko nahikoa ez bada, Lizartzako Udaletxeak ordainduko du gainontzekoa baldin eta eskatzailearen dirusarreraren gaineko Profesioarteko Gutxieneko Soldataren % 20 errespetatu eta gero, eskatzaileak eta Zuzenbide Zibilaren arabera mantentzeko obligazioa duen familiak, hau da, ezkontide, arbaso eta ondorengo zuzenak (Kode Zibilaren 143. Art), plazaren kostu erreala, Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritakoaren arabera, ordaintzeko baliabide ekonomiko nahikoa ez badute.

5. artikulua

Entitate Lokalen aurrekontuen araudian ezarritakoaren arabera, Udaletxeko Aurrekontu Nagusietan partida bat kontsignatu beharko da

laugarren artikuluan erabakitakoak sortuko lituzkeen betebeharrei aurre egin ahal izateko.

HIRUGARREN ATALA

PROZEDURA

6. artikulua

30/92 legeak ezarritako ohizko administrazio-prozedura, hurrengo artikuluetan aipatuko dugun zenbait bereizitasunekin, hartu da gai horri dagozkien erabakiak emateko prozedua espezifikotzat.

7. artikulua

Interesatuak egindako eskaerak emango dio hasiera prozeduarari. Eskaera eskatzaileak eskura izango duen araututako eredu baten bitartez egingo da eta 30/92 legearen 70. Artikuluan aurrikusitako baldintzak betetzeaz gain, atal berezi bat izango du eskatzaileak familiarik (ezkontide, arbaso eta ondorengo zuzuenak) duen edo ez adierazteko eta, izatekotan, beroien datuak zehazteko. Eskaera, Erregistro Nagusian aurkeztuko da eta Lizartzako Udaletxeko Alkate-Lehendakari jaunari zuzenduko zaio.

8. artikulua

Eskaerarekin batera dokumentu hau aurkeztu beharko da:

- a) Eskatzailea azken hamar urteetan Lizartzako Udalean erroldatuta egon dela ziurtatzen duen egiaztagiria.

9. artikulua

Aurkeztu edo zuzendu ondoren eta dokumentuak aurkeztuta, 30/92 legearen 71. artikuluan ezarritakoa jarraituz bideratuko da eskaera eta

eskataileari 15 eguneko epea emango zaio zuzenbidea onartua dagoen edozein bideren bitartez honako inguruabarrak egiaztatzeko:

- a) Eskataileak Zuzenbide Zibileko mantentzeko obligazioaren instituzioaren arabera, bere mantentzeko obligazioa duten ahaide zuzenik ez duela.
- b) Eskataileak eta, baldin baditu, ahaideek, asistentzi zentruan sartzeko gastuak ordaintzeko ekonomi baliabiderik ez dutela. (Oinarria: L.G.S.)
- c) Jabetza erregistroa, Kutxa edo eta beste entitateetatik egiaztageria luzatu behar du, eskaera egiten den unetik kontatuta, era honetan:

75 urte bitartekoak, 15 urte aurretikoak, eta 75 urtetik gorakoak, 60 urte ezkerostik, urtez urte, urtean izandako ondasun higiezin, higikor edo bestelakoak berri emanez. Epe honen barnean egindako eragiketak, salmentak, donazioak, e.a. agertuaz, onuradunak izan direnak erantzun beharko dutelarik.

10. artikulua

Eskataileak eta ahaideak, aurreko artikuluan azaldutako egoerak arrazoitu ahal izango dituzte idatzi baten bitartez. Idatzian, eskataileak eta ahaideak sinatutako deklarazio zinpetua eta notarioak kantotutakoa azaldu beharko da.

11. artikulua

Frogaldia amaitzean, Udaletxeko Zerbitzu Teknikoek, aurkeztutako dokumentu guztiak aztertu ondoren, eskatutako laguntza ekonomikoa ematea bidezkoa den edo ez erabaki eta jakinaraziko dute.

12. artikulua

Txostena egin ondoren, interesatuek 10 eguneko epea izango dute espedientea ikusi eta bidezko deritzoten alegazio eta dokumentuak aurkezteko. Prozeduran, interesatuak ekarritako frogak, alegazio edo egitateak agertzen badira soilik edo erabakian horiek bakarrik kontutan hartzen badira, izapidea bertan behera geratuko da. Kasuaren arabera, organo instruktoreak dagokion erabaki-proposamena idatziko du, izapidea tramitazen bada nahi ez.

13. artikulua

Espedientea amaitu ondoren, Udaletxeko Alkate-Lehendakariak edo hura ordezkariak dezakeen Gobernu Batzordeak dagokion erabakia emango du. Alkate-Lehendakariak, legean ezarrita dagoen prozedura jarraituz espedienteen instruktore funtzioa Gizarte Zerbitzuetako Zinegotzi ordezkariaren deskontzentratu ahal izango du.

14. artikulua

Lizartzako Udaletxeak jakingo balu, eta hala dela frogatuko balitz, eskatzaileak edo familiak 9. artikuluan eskatutako dokumentuetan gezurra diotela, berehala moztu egingo luke emandako dirulaguntza eta kaltetako erakundeei eta eskatzaileari horren berri eman. Halaber, emandako dirukopurua berreskuratzeko ekintzak hasiko lituzke eta eskumen penalean salatuko lituzke egitate horiek maltzurkeriarik egon dela somatuz gero.

XEDAPEN OSAGARRIAK

Lehena: Lizartzako Udaletxeak laguntzak hartuko dituzten pertsonen eskatutako die zor-aitorpenaren dagokien dokumentu publikoa ematea, Udaletxeak kreditu-eskubidea erabili ahal izateko laguntza jasotzen duten pertsonen egoera hobetzen bada.

Halaber, laguntza jasotzen dutenen ekonomi baldintzak aldatzen badira, Udaletxeari jakinarazi beharko zaio, Udaletxeak laguntza

ematen jarraituko duen erabaki ahal izateko, 15. Artikuluan erabakitakoaren kalterik gabe.

Bigarrena: Laguntza eskaera egin eta ezezko erantzuna jaso dutenek, ekonomi baldintzetan aldaketaren bat jasanez gero, berriz ere egin ahal izango dute eskaera, ordenantza honetan zehazten den prozedura jarraituz.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra: Ordenantza honen indarraldi Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egunera hasiko da eta indarra izango du gero egindako beste Ordenantza batek aldatu edo derogatzen ez duen artean.

Zaharren Egoitzetan sartzeko emandako dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

3.- DIRU-SARRERA GUTXI DITUZTENENTZAKO UDAL ZERGETAN LAGUNTZAK

Ana Irurzun Gizarte Ongizateko zinegotziak, Gizarte Laguntzaileak prestatu duen, Ur Hornidura eta Zaborbilketaren tasak ordaintzeko laguntzen araudia aurkeztu du, eta literalki, honela dio:

UR HORNIDURA ETA ZABORBILKETAREN TASAK ORDAINTZEKO LAGUNTZEN ARAUDIA

1. artikulua. Xedea.

Jarraiko artikuloko baldintzak betetzen dituzten famili unitate guztiei etxeko ur hornidura eta zaborbilketa zerbitzuen tasak ordaintzeko dirulaguntzak erregulatzeko da araudi honen xedea.

2. artikulua. Dirulaguntza eskatzeko bete beharreko baldintzak.

Famili unitateko buruak edota beste edozein kidek dituzten dirusarrerak beharrei erantzuteko adinekoak ez direnenan eskatu ahal izango da dirulaguntza zergadunaren aldetik.

Biztanleen erroldan espediente berean izena emanda daudenak hartuko dira famili unitate gisa. Errolda egin ondoren sortutako aldaketak banan-bana aztertuko dira.

Ur horniduraren prezio publikoaren kasuan, hiruhilabetero familia unitatearen kontsumoa 60 m³ gainditzen ez baditu emango da dirulaguntza. Muga hori gainditu ezker, kontsumitu diren 60m³ horietatik gainekoak, finkatutako tarifak aplikatuz kobratu egingo dira.

3. artikulua. Dirulaguntza eskaerak bideratzeko prozedura.

3.1. Dirulaguntza jasotzeko eskubidea dutela erizten duten zergadunek Udaletxean aurkeztu beharko dute eskaria, ondorengo agiri hauekin batera:

- Famili unitateko kide guztien N.A. ren fotokopia.
- Famili unitateko kide guztien dirusarrera, etekin, pentsio, subsidio, errenta, etab. ziurtagiriak.
- Langabezian dagoen familia unitate kide bakoitzeko langabezia egoeraren ziurtagiria eta jasotzen duen dirukopuruarena, INEMek luzatua.
- Aitorpena egiteko obligazioa duten familia unitateko kide bakoitzari dagokion azken ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errenta Aitorpenaren kopia edo, hori ezean, aitortzera behartuta ez egotearen ziurtagiria.
- Famili unitateko kide guztien Ogasun Ordezkaritzaren ondasunen ziurtagiria.

- Famili unitateteko kide guztien kontu eta tituluen banketxeetako ziurtagiria.

- 3.2. Eskaera egin ondoren, dagokion Batzorde informatzailearen proposamenari jarraituz, dirulaguntza eman edo ez eta eman beharreko porzentaia erabakiko du Udalak.
 - 3.3. Hartutako ebazpena Udalak eginiko hurrengo ur eta zabor ordainagiritik aurrerako ondorioa izango du eta horrela jarraituko du famili unitatea egoera horretan dagoen artean, laguntzen urteroko errebisioa egin edo Udalak laguntza hauek emateari uztea berariaz erabakitzen duen artean.
 - 3.4. Tasa bakoitza dagokion borondatezko epean ordainduz gero emango da aipaturiko laguntza. Epe horretatik kanpo, dirulaguntzak ez du inolako baliorik izango.
 - 3.5. Dirulaguntza eskaerak edozein unetan aurkeztu ahal izango dira.
 - 3.6. Bi hilabeteko epean dirulaguntza eskaerari buruzko ebazpena jakinarazi ez bada, ukatu egin dela ulertu beharko da.
4. artikulua. Dirulaguntzak zehazteko irizpideak.

Dirulaguntzak jasotzeko eskubidea ematen duten dirusarrera mailak ondorengo era honetan zehazten dira, laguntza osoa zein zati batekoa izan:

Oinarritzat hartuko den muga ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen Lanbidearteko Gutxieneko Soldata (L.G.S.) izango da. Gehienezko muga hori kide bat edo biko familientzat erabiliko da eta oinarri horri ondorengo indize zuzentzaile hauek ezarriko zaizkio:

- Kide 1 eta 2rentzat: 1'00

- 3 kiderentzat: 1'10

- 4 kiderentzat: 1´20
- 5 kiderentzat: 1´30
- 6 kiderentzat: 1,40
- 6 kide baino gehiagorentzat 0´10 gehiago kide bakoitzeko

Oinarritzat hartutako mugetarainoko diru sarrerak dituzten famili unitateek % 100eko laguntza jasoko dute tasa ordaintzeko. Oinarri horietatik gorako sarrerak dituzten familiek % 75, % 50 eta % 25 eko laguntza eskuratuko dute, mugatik gorako % 10 bakoitzeko.

Ohiko etxebizitzaz gain eskatzaileak beste etxebizitzaren bat badu, diurlaguntza jasotzeko eskubidea galdu egingo du.

5. artikulua. Familiaren diru sarrera multzoa eta gastu kengarriak.

Familiako kideen sarrerak zenbatzeko ondorengo hauek izango dira kontutan:

A - Lanaren edo/eta pentsioen etekinak.

1. Inoren konturako lana.

Dirulaguntza hauen helburuetarako, inoren konturako lanagatiko sarreretatik datorren errendimendu garbia ateratzeko, ondorengo hauek kenduko zaizkio Famili Unitateko kideen irabazi gordinei: Gizarte Segurantzari ordaindutako kopuruak, eskubide pasiboengatik eta derrigorrezko Mutualitateei ordaindutako kopuruak, Umezurtzen ikastetxe eta antzeko erakundeetara ordaindutako derrigorrezko kotizazioak. Sarrera horiek egiaztatzeko nomina edo pentsioaren erreziboa aurkeztu beharko dira.

3. Norbere konturako lana.

- 2.1. Norbere kontura lortutako etekinak eta, batez ere, nekazaritzako ustiapenak, merkataritzakoak zein profesionalak lortutako etekinak Banakako Zenbatespen Objektibo Erraztuaren bidez neurtuko dira.
- 2.2. Kasu horietan, eta desajusteak zuzentze aldera, errentagarritasun errealeko irizpideak ere ezarri ahal izango dira, zergetakoez gain.
- 2.3. Nekazaritza eta abeltzantzako ustiategien edo etxeko produktuak etxeko kontsumorako erabili ohi dituzten bestelako ihardueren jabeen kasuan, horien balio hartuko da dirusarreratzat.

B.Ondarea

1. Ondasun higiezinak

- 1.1. Jabetzan dauden Hirilurreko nahiz landalurreko ondasun higiezinaren balorazioa dagokien balio katastralaren bidez egingo da laguntza hauen ondorioetarako.
- 1.2. Hirilurreko ondasun higiezina ohizko etxebizitza balitz, horren balio ez da kontutan hartuko ondasunak zenbatzerakoan.
- 1.3. Hirilur izaerako beste ondasun higiezin batzuen balioa zehazteko, dagokien balio katastrala hartuko da kontutan, bere balioa beste kontzeptu batean sarturik ez badago behintzat (errenta moduan, adibidez)
- 1.4. Nekazaritza eta abeltzaintzarako ustiategien kasuan, ez dira zenbaketan kontuan hartuko baldin eta familia horrek ustiapenerako dituen landalurreko ondasunen balio katastral, edo oinarri zergagarrien ehuneko lauko kapitalizazio tekniken bidez ondorio fiskaletarako zehaztu

daitekeen balioa edozein titulu juridikogatik hiru milioi pezetatik beherakoa bada. Gainerako ustategien kasuetan, balio katastrala kopuru horretatik gorakoa denea, deskontatu egingo da kopuru hori.

1.5. Edozein kasutan ere, hiribarruko nahiz nekazal eremuko ondasunen alokairu, eskualdaketa edo zesioetatik eskuratutako etekin guztiak hartuko dira kontutan.

2. Ondasun higikorrak.

2.1. Famili unitatearen ondasunen artean edozein kideren eskura dauden tituluak, baloreak, erraz eskuratzeko kreditu eskubideak edo banketxean ezarritako dirurik izanez gero, guzti hori ere kontutan hartuko litzateke.

2.2. Errenta aldakorreko tituluak Burtsan duten kotizazioaren arabera baloratuko dira, eta kotizatuko ez balute, euren balio kontablea hartuko litzateke kontuan.

2.3. Errenta finkodun tituluak euren balio nomila kontutan izanda baloratuko dira.

3. Familiaren etxeko tresneria eta ondasunak ez dira baliapidetzat hartuko, kasuren batean eta duten baliogatik diru ahalmena erakusten duten ondasunen bat egon ezean, eta erraz diru bihurtzekoak direnean.

4. Motoredun ibilgailuetan, merkatuko prezioaren arabera egingo da balorazioa. Baloraziotik kanpo geratuko dira ondorengo ezaugarriok dituzten ibilgailuak:

a) 7 urte lehenago matrikulatutako ibilgailua denean eta eskaera egin baino urtebete lehenago eta laguntza hauek eskuratzeko eskubidea sortu zuen egoera gertatu baino lehen erositakoa denean.

b) Autoen kasuan, 12 zaldikoa baino txikiagoa izango da potentzia fiskala; traktoreetan 16 zaldikoa baino txikiagoa eta kamioien kasuan karga erabilgarria 1.000 kgkoa edo 125 c.c.koa motor eta motozikletatan.

5. Eskatzailearen famili unitatearen ondarea osatzen duten ondasun higigarri eta higiezinek, kalkulurako ezarri diren arauak jarraituz zenbatuta 1.000.000 pezetatik gorakoa bada, hortik gorako kopurua urteko irabazi gisa kontatuko da.

C. Bestelako dirusarrera eta gastu kengarriak.

1. Balorazioa egiterakoan ez dira kontuan hartuko helburu jakin bat duten dirulaguntza sozialak, aldian behingoak ez direnak, larritasun egoerak arintzeko emandakoak, formazio, ikasketa edo antzekoetarako bekak, baldin eta agiri bidez egiaztatzen badira.
2. Ohizko etxebizitza saltzetik sortutako diru sarrerak kendu egingo dira baturatik, era bereko beste etxebizitza bat erosteko, edo norbere negozioa nahiz lanpostua sortzeko oso osorik inbertitzen direnean.
3. Gaixotasun larria edo ebakuntza dela eta egindako gastuak osorik kenduko dira batuketatik, baldin eta dirurik bueltan jaso gabe eta erakunde publiko nahiz osasun arloko mutualitateetatik inolako konpentsazio barik eskatzailearen familiako kideren batek ordaindu zituela behar bezala egiaztatzen bada.
4. Familiaren ohizko etxebizitzaren errenta ordaintzeak sortutako gastuak, errenta hori hilean 50.000 pezetatik beherakoa denean. 50.000 pezetatik gorako alokairuak ez dira gastu kengarritzat hartuko. Urteko K.P.I.aren arabera eguneratuko da kopuru hori.
5. Lehen etxebizitza edo familiaren ohizko etxebizitza denean, hipoteka kredituetatik sortutako gastuak, balio katastrala 4.000.000 pezetatik gorako ez bada. 4.000.000 pezetatik gorako balio katastrala duten

etxebizitzei dagozkien kredituak ez dira gastu kengarritzat hartuko. Balio horien eguneratzea Balio Katastrala eguneratzeko araudian oinarriturik egingo da.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa.

Ondorengo izango da dirulaguntzen taula:

Famili Unitatea		%100	%75	%50	%25
1-2 Kide	Gehienez	69.270	76.197	83.124	90.051
3 Kide	Gehienez	76.197	83.124	90.051	96.978
4 Kide	Gehienez	83.124	90.051	96.978	103.905
5 Kide	Gehienez	90.051	96.978	103.905	110.832
6 Kide	Gehienez	96.978	103.905	110.832	117.759

Muga horiek aldatu egingo dira urtero Estatuko legeriak ezarritako L.G.S.ren arabera eta horren indarraldi berbera izango dute.

7. artikulua. Dirulaguntza jasotzen duten zergadunen betebeharrak.

Famili unitatea osatzen duten kideen lan egoeran eta euren dirusarreretan aldaketaren bat gertatzen bada, gertatzen den unean Udalari jakinarazi beharko dio dirulaguntza jasotzen duen herritarrak.

Betebehar hau ez betetzeak une horretararte eskuratutako dirulaguntzak eta etorkizunean Udalak eman ditzakeenak galtzea ekarriko du. Era berean, familiaren egoera aldatuko balitz Udalari horren berririk eman ez zitzaionetik aurrera jasotako kopuru guztia itzuli egin beharko du. Hala ere, bestelako erantzunkizun eta zigorrak jarri ahal izango zaizkio.

Ur hornidura eta zaborbiketaren tasak ordaintzeko laguntzen araudia aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

4.- TOLOSALDEKO HEZIKETA ETA ENPLEGURAKO ESKUALDE ELKARTEA

Tolosaldeko Heziketa eta Enplegurako Eskualde Elkartetik, Udalen aldaketa egon denez, Elkartean parte hartzeko konpromezua berrestea eskatu dute.

Horren arabera, aho batez, zera onartzen da:

- 1.- Tolosaldeako Eskualde Elkartean parte hartuko duela Enplegu eta Heziketa gaietan plan integral bat egiteko asmoz ondorengo arloetan: langabetuentzat lanerako prestakuntza ikastaroak, 16tik 19 urte bitarteko gazteentzat Lanbide Hastapenetako Programa eta lan munduan sartzeko zailtasun bereziak dituzten langabetuei buruzko programa berezietan: epe luzeko langabetuak, emakumeak, e.a.
- 2.- ANA EDERRA IRURZUN Zinegotzia izendatzen da, Lizartzako Udaleko ordezkari bezela aipaturiko elkartean parte har dezan, behar diren gestioetarako gaitasuna emanaz.

5.- GAZTELUKO KULTUR ETXEKO LANGILEEN EGOERA

Gazteluko Kultur Etxeko Langileek bizi duten egoeraren berri eman eta atxekimendua eskatuaz, aurkeztu duten idatzia:

“Gazteluko Kultur Etxean hainbat langile ari izandu gara lanean eta proiektua burutu zenetik orain arte erabat ondo funtzionatu izan du. Hau da, proiektua biablea izan da ekonomikoki. Bestalde, Gaztelu bezelako Herri txiki bati izugarrizko bizia eman izan dio Kultur Etxeak. Hala ere eta gezurra badirudi ere, duela lau urtetik Udala gestionatzen duen taldeak proiektu hau lurperatzeko ahalegin berezian dihardu. Eta denbora aurrera doan neurrian proiektu hori biablea izan ez dadin neurrigabeko ekintzak burutu ditu Udalak. Horien artean Jaurlaritzakin zuen kontratua haustea izan da. Kontratu hori Udalak eten du eta ondorioz Kultur Etxera etortzen ziren hainbat eta hainbat haur beste leku batzuetara bideratu dituzte. Beraz, guzti honen ondorioa zera da: bost langile kale gorrian geratzeko harrisku bizian gaudela.

Gaiaren garrantzia ikusirik, zure atxekimendua eskatzeaz gain, arazo honi irtenbidea emateko zure esku dagoen guztia egingo duzulakoan, agur bero bat.”

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Gazteluko Kultur etxeko langileei, Lizartzako Udalaren atxekimendua eskeini eta arazo horri irtenbidea emateko beraren esku dagoen guztia egiteko konpromezua hartzea, aho batez onartu da.

6.- ALDE HEMENDIK, mozioa

Euskal Herriak libreki bere hitza hartzeko erabakia hartua du aspaldidanik. Azken urte honetan aurrera pausu nabarmenak eman dira euskal gizartearen baitan, espainiar eta frantziar estatuak historikoki indarrez bahitua izan duten hitza eskuratu eta indarrean jartzeko.

Hainbat mendetan zehar, espainiar eta frantziar konstituzioek agindu lez, bi estatu hauen batasuna indarrez bermatzeko, armadak, gendarmeak, polizia eta goardia zibila ditugu gure artean.

Gutziz aukera politiko jakin batetako (proiektu estatalista frantziar eta espainiarra) indar armatuak hemen diharduten bitartean, herri honek libreki eta beldurrik gabe erabakitzeko posibilitaterik ez du izango.

Argi dago beraz, Euskal Herritar GUZTIEK herri honen geroari buruz libreki erabaki behar baldin badute, indar armatu horiek alde egin beharko dutela. Horretarako bitartekoak jartzen gaurtik bertatik jarri behar ditugula kontutan izanik, Lizartzako Osoko Udal Batzarrari honako puntu hauek aurkezten dizkiogu bertan onartuak izan daitezen:

- 1.- Euskal Herriak bere hitza libreki hartu behar du eta horretarako oztopo guztiak gainditu behar ditugu.
- 2.- Euskal Herriak hitza libreki izan dezan ezinbestekoa da, espainiar eta frantziar indar armatuak Euskal Herritik kanpora geratzea.

3.- Gure herrian dagoen indar armatu espainiarrei udal honek jakinarazten die, ez direla ongi etorriak, herrian eta lehen bait alda egin behar dutela.

4.- Erabaki honen berri eman nahi diegu, herriko indar armatu hauen arduradunei, eta espainiar eta frantziar Barne eta Defentsa Ministeritzei.

ALDE HEMENDIK mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da.

7.- GELDITUTAKO KAPITALAREN ITZULPEN ESKAERA ESTATUARI

1999ko Ekainaren 4ko Ministeritza Aginduaren arabera, Udal honen izenean, Espainiako Banketxean gordailatuta dagoen "Pósitos Municipales – Capital Paralizado" deritzan, 111.878,- peztatako diru kopurua, itzultzeko eskatzea, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministeritzari, Azpi Idazkaritzako Gabineteko Teknikoaren bitartez.

8.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

GURRUTXAGA ANAIK

ZIPITXARREN terrenoan 2 etxebizitzako eraikuntza egiteko baimena.

JOSE LASA ETXEBERRIA

Ainene Berri etxeko baje obra egiteko baimena.

MIEL JOSE ETXEBERRIA

Uretabitarte Baserria eraikitzeko baimena.

INSALUS

IKUSIRIK.- 1999ko Martxoaren 24ean eginiko Bilkura Nagusian, Agua de Insalus, S.A.k promotore bezala erredaktatutako U-2 Areako Konpentsazio Proiektua onartu zela.

IKUSIRIK.- Jendaurrean egon den epean, hau da, 1999ko Apirilaren 29tik Maiazaren 31 bitarte, ez dela inolako alegazio edo iradokizunik egon.

KONTUTAN HARTUAZ.- 1999ko Apirilaren 21eko, 11/1999 Legearen 21. Artikuluko j) atalak, Alkateari ematen diola, Hirigintza Gestioko instrumentuen onarpenerako ahalmenak.

Hori guztia kontutan hartuaz, zera erabaki dut:

Agua de Insalus, S.A.k, promotore bezala erredaktatutako, Lizartzako Arau Subsidiarioetako U-2 Hiri Area berriko ejekuzio unitateko, Konpentsazio Proiektua, behin betirako onartzea.

INAZIA ZEBERIO

AURREKARIAK

1999ko maiatzaren 31ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Lizartzako Udalaren erabakia, Inazia Zeberio herriko alaba kuttuna izendatzea, ikurriña krespoi beltzarekin jartzea, auzokideak beren etxeetan gauza bera egitera animatzea, eta hil kapera udaletxean jartzea, eta hildakoaren hileta eta lurperatze gastuak bere gain hartzea erabakitzen duenaren aurka Estatuko Administrazioak bidezko helegitea jarri duela, 4484/98-1 zk.duna, agertzen da.

GERTAKARIAK

- 1.- Udal honek obligazioa dauka bere ondasuna eta eskubideak defendatzearen beharrezko legezko akzioak egikaritzea.
- 2.- Oro har, Udalbatzari dagokio administrazioko eta legezko akzioak egikaritzeko.

3.- Presa dagoela eta Alkate-Lehendakariari dagokio bidezko akzio administratiboak eta judizialak egikaritzea.

Eraentza Lokalaren Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeko 21.1k), 22.2j) eta 68.1 artikulua.

Aurreko guztiak kontuan izanik, hona Alkate-Lehendakariak hartutako

ERABAKIAK

- 1.- Estatuko Administrazioak 4484/98-1 administrazioarekiko auzi-helegitean alderdi demandatu gisa bertaratzea. Helegite hori Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian ari da bideratzen.
- 2.- Abokatu-lana, ALEJANDRO CASTRO UBETAGOIENA abokatuari bidaltzea, aipatutako helegitean Udal honen interesak defenda ditzan. Abokatu hori eta ALBERTO ARENAZA ARTABE Prokuradoreaz balia daitezke, Udal honek prokuradore horiei auzitan aritzeko ahalorde orokorra eman baitie.
- 3.- Hurrengo Udaltzain erabaki hauen berri ematea eta, bidezkoa bada Udaltzainak erabakia berrestea.

JOXE MARTIN ZUBELDIA AIERBE

Joxe Martin Zubeldia Aierbek, herri honetako Kale Nagusia, 19ko etxeazpian dagoen lokalean, Taberna jartzeko, egindako ikuskaritza bisita eskaeraren arabera, 1999ko Martxoaren 26ean, Udaleko Arkitektoak egindako ikuskaritza Aktaren arabera, ERABAKI DUT:

- 1.- Eskatzen ziren baldintza eta neurri zuzentzaileak bete direnez, Aktibitate hori baimentzea.

2.- Ebazpen honen berri, Iharduera Gogaingarri, Osasunkaitz, Kaltegarri eta Arriskutsu Lurralde Batzordeari jakineraztea.

PLAZA SORO

Plaza Soron, 18 etxebizitzaren edifikaizoa garaje jartzeko, Plaza Soro Kooperatibak egindako ikuskaritza bisita eskaeraren arabera, 1999ko Ekainaren 11an, Udaleko Arkitektoak eginiko Ikuskaritza Aktaren arabera, ERABAKI DUT:

1.- Eskatzen ziren baldintza eta neurri zuzentzaileak bete direnez, Aktibitate hori baimentzea, baldintzapen hauekin:

- Are-hondarraz betetako ontzi bat garaje bakoitzean edukiko da isurkinak zurrupatzeko eta olio edo koipez zikindutako zapiak jasotzeko ontzi bat estalia.

2.- Ebazpen honen berri, Iharduera Gogaingarri, Osasunkaitz, Kaltegarri eta Arriskutsu Lurralde Batzordeari jakineraztea.

LORENZO BARRIOLA TOLOSA

Lardi Baserriko terrazako baranda berritzeko baimena.

M^a JOSEFA ATXEGA

Ipintza Berri etxearen behean bainugela eraberritzeko baimena.

ARANTXA ARROSPIDE ARRATE

Zubiaurre etxearen beheko ezker aldean duen bizitzan estalkia ordezkatzeko baimena.

REPSOL BUTANO

Repsol Butano S.A.k, Lizartzako Aztinako Etxe Burua lurretan, Gasaren almagenamendurako zentroa eta banaketa sarea jartzeko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

Kontutan hartuaz, eskatutako aktibitatea, Gipuzkoako Foru Aldundiako Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuak, GASAREN ALMAZENAMENDURAKO ZENTROA ETA BANAKETA SAREA bezala, klasifikatu duela.

1961eko Azaroaren 30eko IGOKA Erregelamenduak eta ebazpen osagarriek diotenaren arabera, ERABAKI DUT:

1.- REPSOL BUTANO S.A. baimentzea, Lizartzako Aztinako Etxe Burua lurretan, Gasaren almagenamendu zentroa eta banaketa sarea jartzeko, aurreago aipatzen diren baldintza eta Zuzenketa-Neurriei baldintzatuaz:

A) BALDINTZAK

1.- Aldeko Ikuskaritza Akta lortu aurretik ezin izango da, aktibitatea martxan jarri.

2.- Akta hori lortu ahal izateko, Repsol Butano S.A.k, Udalari eskatu beharko dio, Ikuskaritza bisita egiteko.

B.- EZARTZEN DIREN ZUZENKETA-NEURRIAK

1.- Organismo tekniko eskudunek orokorrean aplikatzeko emandako arau espezifikoak bete behar ditu; bereziki hauek:

.- Udal ordenantzak eta hirigintza arauak.

- .- Laneko Segurtasun eta Higieneko Ordenantza orokorra, 1971-03-09ko Agindua (1971-03-16 eta 17ko BOE) VI. eta VII. Idazpuruak; Laneko Arriskuen Prebentzioaren azaroaren 8ko 31/1995 Legea (1995-11-10eko 209 zk. BOE); eta horiekin bat datozen gainerako lege arauak.
 - .- Irailaren 20ko 2413/1973 Dekretuaren bitartez (1973-10-09ko 242 zk. BOE) eta 2295/1985 Errege Dekretuaren bitartez (242 zk. BOE) onartutako Behe tentsioaren Elektroteknikako Erregelamendua; Jarraibide Tekniko Osagarriak; eta horiekin bat datozen gainerako lege-arauak.
 - .- Apirilaren 4ko 1244/1979 Dekretuaren bitartez onartutako Presio Aparatuen Erregelamendua (1979-05-29ko BOE); hori osatzen duten jarraibide teknikoak; eta horiekin bat datozen gainerako lege-arauak.
 - .- Urriaren 22ko 1853/1993 Errege Dekretua (93-11-24ko 281 zk. BOE), etxeetan, jendea dabilen lokaletan edo merkataritzakoetan gas instalazioak ezartzeko Erregelamendua onartzen duena.
 - .- Petrolioaren gas likuatuak (PGL) depositu finkoetan biltzeko instalazioen Erregelamendua, 1986ko urtarrilaren 29ko Aginduaren bitartez onartutakoa (1986-02-22ko 46 zk. BOE).
 - .- 1974ko azaroaren 18ko Aginduaren bitartez onartutako Gas Erregaien Sare eta Hartuneen Erregelamendua (1974-12-06ko 292 zk. BOE), 1983-10-26ko Aginduaren bitartez (1983-11-08ko 276 zk. BOE) eta 1984-07-06ko Aginduaren bitartez (1984-07-23ko 175 zk. BOE) aldatutakoa, eta hori osatzen duten jarraibide teknikoak (ITC-MIG).
- 2.- Kontsumo aparatuetarako ezarritako aire-sarrerek, aireztapenek eta ke eta gasen hustuketak lehen aipatutako urriaren 22ko 1853/1993 Errege Dekretuari dagozkion artikuluetan zehaztutakoa bete beharko dute.
 - 3.- Propano gasaren zentru hau ipintzerakoan bere sailkapenari **(A-3)** dagozkion segurtasuneko distantzia minimoak bete behar dira, hau da, goian aipatutako Petrolioaren Gas Likuatuak (PGL) Depositu Finkoetan Biltzeko

Instalazioen Erregelamenduaren eranskinean ageri den segurtasuneko distantzien taulan adierazitakoak.

Aurkeztutako dokumentazio grafikoan ikus daiteke deposituen arteko distantzia metro 1ekoa dela; distantzia hori aipatutako erregelamenduan eskatutakoa baino txikiagoa da; beraz, zuzendu egin beharko da, 1,2 m-ra iritsi arte.

- 4.- Gasa hornigai energetiko gisa erabiliko duten instalazio hartzaileen artean, jendea biltzen deneko tokiak badirela kontuan hartuta (tabernak, ostatua, etab...), sukaldean edota galdarategian ihesaren bat gertatuz gero, gasa automatikoki detektatuko duen instalazioa jarri beharko da, gas emaria eten eta ikus-entzuneke seinalea martxan jarriko duena; aipatutako seinalea kanpoan jarriko da ikusteko moduko lekuan.
- 5.- Instalazio horrek administrazio baimenak behar duenez, obrak ezin izango dira hasi instalazioaren titularrak edo emakidadunak Eusko Jaurlaritzako Industria Ordezkaritzak aldez aurretik emandako baimena eskuratu arte.
- 6.- Udal horrek irekitzeko baimena eman baino lehen, titularrari instalazioa martxan jartzeko dokumentua eskatu beharko zaio. Dokumentu horrek, lurraldeko erakunde eskumendunak emandakoak, aipatutako instalazioak 1986 urtarrilaren 29ko aginduan ezarritakoa betetzen duela ziurtatzen du, eta, gainera, PGLen ohiko hornidura eskatzeko derrigorrezkoa da.
- 7.- Hauts lehorrezko bi (2) su-itxalgailu eramangarri jarri beharko dira, 113B eraginkortasuna dutenak; hauts balioanitzeko 25 kg-ko karro bat; larruzko eskularru pare bat (1); eta testu hauek eramango dituzten kartelak: "GAS SUKOIA", "EZ ERRE ETA EZ SURIK PIZTU". Horiek denak instalaziotik gertu eta erraz eskuratzeko moduan egon beharko dute.

Era berean, toki ikusgarri batean, instalazioaren eta instrukzioen eskema bat egongo da, erabilia izateko.

Hornitutako ur hartune bat jarriko da, 25 mm-koa, lantza puntan uraren presio dinamikoa, 3,5 Kg/cm² gehienez, izango duena, eta gutxieneke ur

emaria segundoko 1,6 litrokoa. Hornitutako ur hartunearen mangera erdi uzrruna izango da eta ez autokolapsagarria.

Instalazio horrek sare orokorretik hartuko du ura, eta bestelako erabileretarik apartekoa izango da. Ez du izango ez kontagailurik ezta balbula itxirik ere.

Hornitutako ur hartune hori itxieraren irteeratik ahalik eta hurbilen kokatuko da, eta ura PGLen instalazioaren edozein puntutara iristeko moduan.

Hornitutako ur hartunearen tutu sarea izozteen aurka babestu beharko da.

Estaziotik kanpoan eta bertatik ehun metrora baino hurbilago, suhiltzaileek bakarrik erabiltzeko suteen aurkako ur paldo bat izan beharko da.

- 8.- Derrigorrezkoa izango de depositu eta ekipoen kokagunea hesi baten bidez inguratzea, gutxienez, bi metroko altuera izango duena, sare metalikozkoa edo antzeko sistema erregaitzekoa, aireztapen egokia ahalbidetuko duena eta bertakoa ez den jendea sartzen galeraziko duena.
- 9.- Instalazioak prestatua egon beharko du kamioien zisternek lurrerako hartunea izan dezaten, hartara, babestuta egongo da elektrizitate estatikoaren aurka. Sistema hori honela antolatu beharko da:
 - Kable bat izan beharko du, mutur bat lurrerako hartunearen sarera lotuta eta beste muturra pintza baten bidez ibilgailuan, zisternaren ondo-ondoan, egongo den terminal bati lotuta.
 - Lurrerako hartuneko kableak 16 mm²ko sekzioa eduki beharko du gutxienez eta malgutasun handikoa eta isolamenduduna izan beharko du.
 - Lurrerako hartuneko lotura elektrikoa eskuzko etengailu baten bidez egin beharko da, alde horren klasifikazioaren arabera babesa duena. Pintza zisterna kamioiari lotu ondoren baino ezingo da itxi etengailua.
- 10.- Ezingo da PGLren deposituak betetzen hasi kargatzeko ahozuloaren inguruan dagoen lurreko hartunea kamioi zisternarekin konektatu gabe baldin badago.

11.- Bete baino lehen, bai deposituak bai gas faseko kanalizazioak lehen aipatutako 1986ko Urtarrilaren 29ko Aginduan zehaztutakoari jarraiki, instalazio honi dagozkion proba eta saiakuntza guztien pean jarriko dira.

Behin probak eginez gero, instalazioen puztuketa bat egingo da, gas geldoa erabiliz.

12.- Ipinita dauden suteen aurkako babesbideek mantenimenduaren inguruan ondorengo lege-araudiek diotena bete beharko dute, hain zuen azaroaren 5eko 1942/1993 Errege Dekretuak, suteen kontra babesteko instalazioen Erregelamendua onartzen duenak (1993ko abenduaren 14ko BOE, 298 zk.) eta 1998ko apirilaren 16ko Aginduak (1998-04-28ko BOE).

13.- Proiektuan adierazita dauden zehazpenak eta neurri zuzentzaileak nahitaez bete behar dira, goian aipatutako jarraibideekin bat ez datozenean izan ezik.

Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 1998ko Otsailaren 27ko 3/1998ko Lege Orokorraren 61.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki, gas propanoa erabiltzeko baimenik ez da emango, **Irekitzeko Lizentzia** eskuratu arte; ezin da, beraz, kargatu propanoaren depositua.

Aipatutako Irekitze Lizentzia eskuratzeko, derrigorrezkoa da eskumena duen funtzionari tekniko batek dagokion egiaztapenerako bisitaldia egitea.

Erabaki honek, administrazio bideari amaiera ematen dio. Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa jar daiteke, Justizi Auzitegi Nagusiko Kontentzioso-Salaren aurrean, bi hilabeteko epean, jakinerazpena hartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Errekurtsoa ezarri baino lehen, aurkatutako egintza eman zuen organoari jakinarazi beharko zaio (azaroaren 26ko 30/1992 legearen 110.3 artikulua).

Hala ere, beste edozein errekurtsu jar daiteke, komenigarri iritziz gero.

JUAN M^a LOIDI AIZPURUA

Araxes Karrozerian ate berrian jarri eta fatxada pintatzeko baimena.

LIZARTZAKO ZENTRALA

Errepidetik zentraleko zubi bitartean masa botatzeko baimena.

MANUEL GOIKOETXEAUNDIA

Goikoetxeaundia Zerrako zoruan masa botatzeko baimena.

FORU ALDUNDIA

AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Aldundiako Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko Azaroaren 24ko 82/1998 FORU DEKRETUA, Lur-zoru hiritarrezineko baimen eta lizentzia kontuetan jarduketak koordinatzen dituenari buruz, Udal honek aurkeztutako idatziari, Gipuzkoako Foru Aldundiako Departamentu horrek emandako erantzuna.

GERTAKARIAK

Udal honek obligazioa dauka bere ondasun eta eskubideak defendatzearen beharrezko legezko akzioak egikaritzeko.

Oro har, Udalbatzari dagokio administrazioko eta legezko akzioak egikaritzea.

Presa dagoela eta Alkate-Lehendakariari dagokio bidezko akzio administratiboak eta judizialak egikaritzea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

- 1.- Eraentza Lokalaren Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeko 21.1.k, 22.2.j eta 68.1 artikulua.

Aurreko guztiak kontuan izanik, hona Alkate-Lehendakariak hartutako

ERABAKIAK

- 1.- Gipuzkoako Foru Aldundiako Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko Azaroaren 24ko 82/19998 FORU DEKRETUA, Lur-zoru hiritarrezineko baimen eta lizentzia kontuetan jarduketak koordinatzen dituenari buruz, Udal honek aurkeztutako idatziari, Gipuzkoako Foru Aldundiako Departamentu horrek emandako erantzunari ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA tarteratzea.
- 2.- Abokatu lana, ALEJANDRO CASTRO UBETAGOIENA Abokatuari bidaltzea, aipatutako Errekurtsoan Udal honen interesak defenda ditzan. Abokatu hori eta ALBERTO ARENAZA ARTABE Prokuradoreaz balia daitezke, Udal honek prokuradore horiei auzitan aritzeko ahalorde orokorra eman baitie.
- 3.- Hurrengo Udalbatzan erabaki hauen berri ematea eta, bidezkoa bada, Udalbatzak erabakiak berrestea.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du,